

# Nafarkaria

• ostirala • 1998ko ekainaren 19a

**Egunkaria**

Gehigarri honetan



**Betelu** • Udalaren Hirigintza Planak hainbat iskanbila sortu du.

**Laura Beloso** • «Nafarroan Madrilen baino errazagoa da film laburrak egitea».

## Europako laguntzei begira

• LUIS AZANZA



2000. urtean Europako Batasunak dirulaguntzen mapa eta horiek jasotzeko baldintzak aldatuko ditu. Orain arte nekazaritzaren garapenerako Europako Fondoetatik jasotzen zuen dirurik gabe gera daiteke Nafarroa. Herrialdean aritzen diren nekazari lurraldeen garapenerako lau elkarteak kezkatuta daude, dirulaguntzak lortzeko asko saiatu beharko dutelako, Gobernuaren arabera.



# Betelu • Istilu ugari sortu du Hirigintza Planak

Udalak egin nahi dituen lur desjabetzeekin ez datoz bat herritarrak

**Apriliaren 8an onartu zen behin-behineko plana, baina udalbatzarretan iskanbilak sortu dira, kaltetuek parte hartu dute eta. Oraingoan, herritarrek alegazio epea luzatzea lortu dute.**



Hirigintza Planak ez du harrera ona izan herrian.

• URKO ARISTI

**M**AIATZAREN 28AN IZUGARRIZKO iskanbilak izan ziren sei bat ordu iraun zuen udalbatzarrean. Bertan bildu ziren Udaleko kideak eta Plangintzak kaltetutako zenbait herritar. Birao eta juramentu ugari izan ziren bilera hartan, eta lortu zen gauza bakarra alegazioak aurkezteko epea abuztuaren 19ra arte luzatzea izan zen. Izan ere, kaltetutako esanetan, plangintza ezagutzeko aukera gehiegirik ez du eskaini Beteluko Udalak. Egunean ordu bakar batez ikusi ahal izan zen, eta gehiegi iragarri gabe, komunikabideen bidez jakin du, batek baino gehiagok, bere luraren desjabetzearen berri. Plangintza aurrera ateratzeko, lur asko desjabetu behar dira. Jesus Gonzalez alkatearen esanetan, beharrezkoak direnak baino ez. Kaltetuen usteetan, ordea, beharrezkoak direnak baino askoz gehiago.

Rekaldetarrek, adibidez, zurgintza tailer bat dute, eta bai tailer hori, bai bere etxebizitza, desjabetzeko asmoa zuen Udalak, osasun kontuetarako erabili behar omen zelakoan eremu hori. Orain, akats bat izan zela esan diete, baina hala ere, plangintza honen aurka jarraitzen dute.

Angel Rekaldek dioenez, «gauzak legalki egin dira, baina legearen barruan ere jokatzeko era ugari daude. Plan honen oinarria, herritarren artean egindako inkesta bat omen da, eta inork ez du ezagutzen inkesta hori». Angel Rekalderen ustez, plangintzak baditu akats asko: «Etxebizitza gehiegi aurreikusten dira. Kanpotik jendea etortzea nahi badugu, bai, beharrezkoak dira, baina horretarako bertan bizi garenok kaltetuak gertatuko gara, eta hori ez da herritarren iritzia kontuan hartzea. Gainera, industriaren gaia ez dute kontuan hartu». Izan ere, herrian, fabrika bakar bat da: Wisco Española. Herritarren ustez, fabrika hori ito egin du plangintzak, eta ez du, gainera, industria berrientzako lekurik aurreikusten. «Badakigu autobide-

detik kanpo geratzearekin industri handiak ez direla etorriko, baina tailer txikiak sor daitezke, eta aukera hori ez du kontuan hartu Udalak». Kale berri ugari sortuko lituzke, bestalde, planak, eta kale horiek zazpi bat metroko zabaleria izango lukete. Zenbait berdegune ere aurreikusten ditu plangintzak, eta horiek ez omen dira beharrezkoak, Beteluko ingurunea kontuan izanda.

Plangintzaren prestaketa 1996an hasi zen, Nafarroako Gobernuak dirulaguntza eman ondoren. Lehiaketa publikoa antolatzen orduan, eta, alkateak esandakoaren arabera, «ez proiektuan ez Betelun interesik ez zuten teknikarien aholkua eskatu zuen Udalak». Orain, alegazioen azterketa, plangintza egin duten teknikari beren eskutan da. «Ez dugu

ezer inposatu nahi», dio alkateak. «Orain, proiektua herritarren esku dago, eta horrela, Beteluko auzokideek interes pertsonala edo orokorra kontuan hartuz, beren aportazioak egingo dituzte». Bere ustez, kexatzen diren herritarren jarrera, arrazoi faltan oinarritzen da. «Argumenturik ez dutenez, alegazioak idatziz egin beharrean, protestaren bidea aukeratu dute. Beteluko Udalak legearen barnean jokatu du. Etorkizunari begira eginga dago plangintza eta orain kexu direnak dira gerora plangintza honetaz gehien aprobetxatuko direnak».

Gatazkaren azken gertaera alkateak herritar bati jarritako salaketa da, udalbatzar hartan mehatxatu eta iraindu zuelakoan.

→ Urko Aristi

## Zugarramurdi • Akelarrea ospatuko da larunbatean

AZKEN URTEOTAN GURE eskualdean egiten den bestarik garrantzitsuenetako bat egiten da larunbatean, Zugarramurdiko akelarrea. Urtetik urtera handitzen doan besta da Zugarramurdikoa. Azken urteotan, kobazuloan egiten den bestan 6.000 lagunetik goiti sartu izan da, eta herria ttiki gelditu izan da.

Urtero bezala musika eta antzerkia izanen dira bi osagai nagusiak. Gaueko 9:30etatik aitzinera hasiko den jaialdian Joxe Ripiau ariko da bestari hasiera emateko. Ohiko akelarreak gain, Gasteizko Stronk ikuskizuna eskainiko dute, ikuskizun berezi-berezia, perkusioan oinarrituriko ikuskizuna baita, harri, egur eta metaletan oinarritua, musika lagun duela. Bestari akabera emateko Kukumiku taldearekin dantzaldia izanen da kobazuloan. Kobazuloan egonen den jendeaz gain, herriko plazan eta ostatueta ibiliko den jendeak Zizkuitz txarangaren animazioaz gozatu ahal izanen du arrats osoan.

Zugarramurdiko makina bat herritar aritzen da egun handi hau antolatzen, gazteak ez ezik, baita helduak ere. Bildutako diruarekin makina bat gauza antolatzen dituzte urtean zehar, bertzeak bertze bestak. Herriko pilotalekua eraikitzea ere horrela lortu zuten.

Zugarramurdiko kobazuloetara milaka pertsona hurbiltzen dira egun horretan. Musikak, antzerkiak eta ohiko zikiro egiteak Sanjoanen hurbiltzea ekarriko digu gogora.

→ Jon Abril

xoko ttikia

ESTITXU FERNANDEZ



**G**aur egun, Telebista kanaleak onddoak bezela jaiotzen dira; egun guziaz zapping egiten pasatuta ere, ez dakit denak ikusteko denbora ematen duen. Kanale publikoak, pribatuak, digitala...

Horien guztien artean, badago bat, ttikia, berria, besteekin konpetitu ezin duena, baina bertze gehienek galdu duten ezaugarri bat bere motor nagusizat duena: ilusioa.

Telebista honetan ez da Hollywood-eko pelikularik ikusten, beno, ez Hollywood-eko ez bertze

## Irudien mundua

inongo filmerik ere; Zubizarretaren lehengo eguneko hutsa ere zen ikusi. Hogeita lau orduko programazioa eduki beharrean, ordubete exkaxekoa du; langileak kontratatzeke ere, esku bateko behatzak soberan daude; estudioak... nola estudioak?, estudioa. Bat bakarrik baitago.

Baina telebista honek, bertze guztiek ematen ez dutena ematen du: gure herrietako berriak. Gure pertsonaia eta bazterrei toki berezia egiten die; azken finean, gure eguneroko bizitza da protagonista nagusia.

Honezkero, nori buruz ari naizen asmatu izanen duzue; bai, bai Ttipi-Ttapa Telebistaz ari naiz. Euskal komunikabide berri bat jaio da eta urte aunitzez iraun dezan opa diot. Ez du iduri erraxa denik, hala ere, alde ekonomikoa kontuan hartuz gero. Diru aunitz behar da horrelako proiektu bat martxan paratzeko, ilusioa ez baita aski. Edonoren laguntza hartzeko prest gaude. Bai, ongi irakurri duzue, «prest gaude», ni ere salsa horretan sartua bainago.



urdairen  
mintzoa

Xabier Larraburu

### Ordezkapenak

Telebistarik ez dudanez tabernara jo nuen Brasil-Marroko ikustera. Ardo bat eskatu eta bi arabiarren ondoan eseri nintzen. Hasiera batean *etsaien* artean egongo nintzela pentsatu nuen baina ez, nire sorpresa sarako arabiarrek Brasilen alde egiten zuten nirekin batera: Ronaldo!, Rivaldo!, guau!, bufl, ozenki ohiukatzen zuten nire ostia!, ona-ona! eta abarrekin nahasiaz. Kontua da talde arabiarrek ez ziela ordezkatzen, eta hori, nire ustez, jokabide sanoa da. Arabiarrek ez bait dute zertan talde arabeekin itxumustuan egon behar beti.

Adibide gehiago. Lengoan Eskoziarekin bat egiten zuen nire adiskideak «eskoziarrak euskaldunen *antza* dutelako». Beraz Europako Herri Zahar Eta Txikien ordezkapena zelairatu zuten. Nik beste txorakeri batekin erantzun nion orduan. Brasileko txiroen alde, *favelan* alde nagoela esan nion, eta dudatan utzi nuen. Jajaja. Ze txorrada nirea: Ronaldok, iñor ordezkatzekotan, bera bezalako milloidunak ordezkatzen ditu, Bill Gates esaterako, eta ez mixeria gorrian bizi den jendea. Beste gauza batzuk ordezkatzen ditu ere. Animalia azkar batzuen manerak esaterako, edo Erregearen Mosketeroak (botatzen duten bakoitzean kexatu gabe altxatzeko duen joera jatorrarekin), hauek nire zaletasunak idazten dituen beste memelokeri batzuk besterik ez izan arren. Ronaldoren alde nago eta ez Futbolaren alde. Brasildarra elegantea da. Joko garbia erakusten du. Ziztu bizian ate ondoan dagoen arrisku handi eta ixil bat da. Futbola ez. Futbola beste kontu bat da: joko zikiña, mukizuk mukizukeriak egiten, karraxiak eta Taldeen ordezkapen ditxosozkoa. Gu ordezkatzen gaituztela? Mesedez. Faborez. Arren.

Orain, euskaldunak nonbait gaizki ordezkatuak gaudenez, lege berria onartu dute auzokide dugun Erkidegoan. Zein aspergarria egiten zaidan gaiari ematen zaion hil ala biziko garrantzi hori. Nire aldetik esan behar ditudan bi esalditxoetan laburbildu daitezke. Egin dezatela euskal selezioa. Espainiakoa bezainbeste ordezkatuko nau ni: Zero.

### Lizarra

## Maria de Maeztu literatur lehiaketa deitu dute bigarrenez


LIZARRAKO EMAKUMEEN ASANBLADAK eta Emakumearen Kultur Elkarteak Maria de Maeztu sariaren bigarren lehiaketarako deia egin berri dute. Sariaren xedea Gustavo de Maeztu margolariaren araba izan zen Maria de Maeztu emakumearen irudia nabarmendu eta goraiatzea da. Halaber, literatura lehiaketa honen berezitasuna da emakumei zuzendua egotea.

Maria de Maeztu (1881-1948) aitzindari izan zen pedagogiaren munduan mende honen aurreneko erdian. 14 urte zituela gogoz ikasten hasi zen eta Irakasletza ikasketak egin zituen Bilbon, Madrilen, Europan eta Ameriketean. 1915. urtean emakumeentzako lehengo ikasle egoitza sortu zuen Madrilen, eta horrela emakumeen integrazioa bideratu zuen, ez soilik eremu akademikoan, baizik eta bizitza sozialan ere bai. Maria de Maeztu irakasle, idazle, hizlari eta pedagogoa izan zen. Argentinan hil bazen ere, haren gorpua Lizarran lurperatua dago.

Lehiaketan 18 urtetik goitiko emakume guztiek parte har dezakete. Lanek argitaratu gabeak behar dute izan. Idazlanak gehienez hamar orrialde bete behar ditu, eta bai gaia bai egituraketa libreak dira. Irabazlearentzako 100.000 pezetako saria dago eta lanak uztailaren 31 baino lehenago igorri behar dira Emakumearen Kultur Elkartera. Irabazlearen izena urrian jakinen da eta sari banaketa azaroaren bigarren hamabostaldian egiten da.

→ Kristina Berasain

### • Iruñea •



JOXE LACALLE

## sanferminak gero eta gertuago

Sanferminetarako hamazazpi egun besterik ez dira falta. Uztailaren 6a iritsi arte aztoratuta dabil Iruñea, festa lehortzen den egunerako dena prest izateko. Jantzi dendetan hasi da txuri-gorria nagusitzen, atzeritarrak ere hurbiltzen ari dira, eta, nola ez, egunero goizeko 8:00etan egiten den entzierroaren ibilbidea ixten duten hesiak paratzen ere ari dira. Santo Domingoko ukulua jarri dute eta entzi erroaren ibilbidearen puska bat ere bai. Dena den, aurtengoan afera ez dira hesiak, ibilbidearen zorua baizik. Zezenplazara iritsi baino lehenagoko Estafeta kalean adokina jartzen dihardute egunotan. Sanferminetarako bukatuko ahal dute; gainerakoan gorriak ikusi beharko dituzte, zezenek ez ezik, lasterkariek ere!

### Sakana

## Euskara, denon esku

'EUSKARA DENON ESKU' EGITASMOAREN aurkezpen publikoa eginen da bihar, Mankomunitatearen egoitzan, 12:00etan. Han Siadeco enpresako Kike Amonarrizek Sakanan 1996-97an euskararen erabileraren inguruan egindako ikerketaren emaitzak azalduko ditu. Harekin batera, Yolanda Olasagarrek, Sakanako euskara teknikariak, kanpainari eman dioten jarraipenari buruzko balo-

razioa eginen du. Olatz Berastegik, berriz, egitasmoaren jarraipena egiten ari den bekaduna izanik, lehenengo fasearen emaitzen berri emanen du. Hitzarmena sinatu duten 124 elkarteetako ordezkariek gonbidatuak daude ekitaldira. Hitzaldiaren ondoren, otamena izanen da Mankomunitatean. *Euskara denon esku* kanpaina dela eta, euskara erabiltzeko hitzarmena sinatu dute Sakanako hainbat elkartek. Siadecok 1996-97an esparru asoziatiboaren inguruan egindako lanaren ondorioz eskualdeko 124 elkarrek (kirol, dantza, jubilatuz, gastronomi zein kultur elkarteak) euskararen erabileraren aldeko hitzarmena sinatu zuten. Egitas-

moa, hala ere, ez da horretan gelditu, eta 1998an jarraipena izan du. Olatz Berastegi, NUPeko Soziologiako ikaslea, elkarte guztiak bisitatzen eta datuak jasotzen ibili da aipiriletik maiatzera bitartean. Aurrerantzean ere egitasmo honen bigarren fasean ariko da, elkarte gehiagorekin hitzarmenak egin eta daudenekin harremanak sendotzen, bereziki gazteen munduan lan egiten dutenekin. Yolanda Olasagarren arabera, garrantzitsuena da «autoplizazioa lortzea». «Ikerketa bizia da eta jarraipena behar du baina ez da helburu», gaineratu du.

→ Amaia Amilibia



### herri aldizkariak

Edurne Elizondo

## Aralarko Parkea eztabaidagai

**Mailope** aldizkariko azken zenbakiak, Aralar-ko Mendilerroa Parke Natural izendatzeko asmoak inguruko biztanleentzat duen garrantzia kontuan hartuta, sektore ezberdinetako jendearen iritzia jaso du. «Oraindik prozesua oso luze joango den arren, herritarren artean dagoen ezjakintasun handia nabaria denez, informazioa zabaltzeko premia ikusten zuten elkarrizketatu guztiek», dio **Mailopek**.

Elkarrizketatuetako bat Aralar-ko Elkarte-ko kide Jabi Otamendi da: «Babes neurri batzuk hartzea ezinbestekoa da, interes handiko naturaguneek etorkizunean, gutxienez,

orain bezala jarrai dezaten, eta bestalde, bisitarien kontrol zehatzago bat eginaz mendia zabor eta hondakinen eraginetik gehiago babestuko litzateke. Halere, Parkea sortzearen arrazoi nagusia ekonomikoa dela uste dut, Nafarroako Gobernuak Europatik dirutza handia jasoko bailuke».

Artzainen ikuspuntua ere jaso du **Mailopek**, Juan Luis Pellejeroren ahotik: «Abereei dagokienez, lehen baino askoz ere kontrol handiagoa egongo da. Kontuan hartu behar da, hala ere, Aralar hemeretzi herrirena dela, eta bertan ditugun eskubideak defendatzen

jarraitu behar dugula». Inguruko herrien iritzia jasotzeko, hain zuzen ere, Astizko alkate Martin Juanenaren hitzak jaso ditu **Mailopek**: «240.000 bisitari etorriko lirateke urtero, eta horrek aberastasun handia sortuko luke bai Astitzen, baita zonaldean ere. Halere, ez gara aberastuko, baina uste dugu herriko aterpeari bizia emateko eta lau lanpostu sortzeko baliagarria izanen dela». Plazaola Patzuego Turistikoko kide Maitena Ezkutarik, azkenik, zera azpimarratu du: «orain dela hoge urteko Aralarren ideiarekin ezin da jarraitu».



Klasiko bitxi • arront klasiko

Joxemiel Bidador

# Rosoren balentria gogoangarria: Tuteran, 1851

1851.eko ekainaren 23an Tuteran otso amorratu bat sartu zen; Pedro Resak, *Roso* ezizenez ezagunagoa zenak, otsoarekin borrokan, piztia garaitzea lortu zuen; basa animalia amorratuak, hirian eginiko itzulian, hiru hildako utzi zituen, haien artean ere, *Roso* ausarta zegoela.



**E**Z DAKIT ITSU-ERROMANTZE hau Julio Caro Barojak ezaguna zukeen, baina ezetzean nago, bestenaz, ezin zitzaiokeen atzendu agun-literaturaren gainean maisuki ondu zigun saiakeran sarbiderik ematea, hain da eder eta ez ohikoa dakarkigun pasadizoa. Guztiarekin, ez zen honakoa oharkabea igaro zitzaion bakarria, bada, *colportage* eta *cordel* literaturen artean kokaturik dugun, geografikoki bederen, gure bertso-paperean tradizioa zehiarka ere ia ez baitzuen ekarri. Afera, antza, ez zegokigun eskaldunoi, eta betiko leloa beste behin biziaraziz, euskaldunok ezetz, ez dugula izan bizitza literario-rik, ahozkotasunean landugabeki nahiago izan dugun herria izan garela, ahozkaritzan garatu izan den hau bezalako generotik lekot ere uztea nahiago izan dute, eskuarki. Azken buruan, Beran bizitokia zuen honek, espainieraz idatzi zuen espainiarrentzat, eta mamutzarrak uxatzen ahalegindu zen ber, agian nahi gabe ere, iraurazten zituen kupidagabeki. Eta horretan gaude.

Gaurkoan ekartzen duguna, espainieraz eginiko itsu-orri bat dugu, *La hazaña del Roso*, Logroñon 1851.ean moldatua, eta ber urteko ekainaren 23an Tuteran bertan agitutakoaz mintzo dena. Ezin uka literatura txikia atsegingarria ez zaionak istorio txiki ere duen aldetik juzku ona atera dezakeela, gertakizuna bera denetik ezpada, bai beronetatik ondoriozta daitezkeenetik gutxienez. Plegura itzuliz, arras zaila dateke inon begitatzeko, alabaina behiala bazuen jaso Castro Alavak bere tuterar bibliografia erraldoian, osorik, baita artxibategietan

jazoeraz zegokeenaren aipua. Beharrik ere.

Esan datan, bada, goizeko ordu bietan, argi-urratzen eta ilunzko, San Salbadorreko larrainetan, otso amorratua azaldu zen. Hantxe zeuden hiru artzainak otsoak jauki lehenbiziko pertsonak izan ziren, eta bik ihes egitea erdietsi bazuten ere, hirugarrena, Pedro Argos zeritzana, bertan behera garbitu zuen basapiztiak. Hirirako sarkura garbirik, Ebro gaineko zubitik abiatu zen, non Agustin Montori agurearekin topo egin zuen, eta esfortzu haundiegirik saiatzeke, hantxe ere ehotu zuen gizarajoa. Zubian oraino, hirugarren biktima largatu zuen otso itsuak, Gabriel López bidezaina alegia, larriki zauritu zuena. Zubia gurutzaturik, hiriko sarkian, Mateo Santos artzaia bere astoan igota ikusi zuen otsoak, eta bi koitaduen gainean jauzirik, hil-hurren sakitu zuen gizona, astoaren odola ezpore saminiega bide zuen eta haren gustorako. Ordurako Pedro Resa, *Roso* ezizenez ezagunagoa zen igureia, lanera baino lehenagoko paltarra galdatzen ari zen Santa Maria plazako eguneroko tabernan, otso amorratua azaldu zitzaionean odoltzale. Ez zen *Roso* bipila luzamendutan ibili, eta piztiarengana zuzenduz, barailetatik heltzea lortu zuen, haatik, jarrera deseroso hartan zotukatu ezinik, otsoa akabatzen lagunduko zuenaren zai geratu behar izan zuen. Borrokatik atera azantzak, ordea, Ber-

nardo Casamayor gauzaina etorrarazi zuen, eta eskopetarekin ahal ongien destatuz, gauza erraza ez zena, hain ziren bortitzak eta ustegabekokak *Roso* otsoarekin dantzatzen zituen higidurak, noiz edo noiz ere, gauzain izukaitzak ituan bete-betean jo zuen, eta hantxe geratu zen otso ankerra zurbilik, Tuterako bidean bi hildako utzi ostean. Pedro Resa, ordea, arras trenputxarturik geratu zen, eta berrogei egunen buruan ere, lurrera eman behar izan zuten, erakutsitako ausardiaren bidegabeko ordea zirudiena. Esangabe doa, tuterar guztiak arras urrikaldurik, osasuna enkomendatzekoak bihotzez eman zietela Rosoren senitartekoei, baina huraxe gutxi irizirik, agintariel sari oparoago baten emateko eskatu zieten sutsu. Ez zuten bihotz-gogor erantzun agintariak, bai errukiturik zeudelako, bai populua beldurrez, eta esker-onez, Nafarroa osoko buruek nahiz Tuterako udalak ere, Rosoren amaren zein alargunaren aldeko erabakiak hartu zituzten. Nafar aldundiak, abuztuaren 6an onartutako agirian, bi mila errealkuarto emateko erabakia xedatu zuen, eta bere aldetik, Tuterako udalak bikote nahi gabetuari bizitza osorako mantenua eskeini zion esku zabal.



etorri ahalean

Patziku Perurena



## Zakurrak elizan

**G**AUR EGUNETIK BEGIRatuta iduritzen zaigu gure elizak sortze beretik izan direla Erromako Inperioarenak, baina, ez dira hala izandu. Gure herriak kristautzen ari ziren garaian, eliz asko jauntxo laikoek baitziren, XI-XII garren mendetan oraindik. Hala dio Perez de Urbelek:

«Götzaiak egin ziren eliza haundien jabe, baina eliza koskor asko jauntxo laikoen esku zeuden; jaun honek bere odoleko abade bati utziko elizaren gobernu, eta maiz abadearekin batera, eliz barranean bizitzen ziren bere familiar guztiak: gizon, emakume, haur, palafrenero, hegazti harrapari, zakur ehiztari... eta bertan ikasten zituzten ehizarako, gerrarako, eta askotan baita, amodiorako martingalak ere».

Baina Vatikanok atzenaroko bereganatu egin zuen eliza laikoon gobernu, batez ere Clunyko erreformarekin hasi eta gehienak bere agindupera para zituen arte. Clunytarren eraginez egin zen Coyanzako kontzilioa 1050ean, eta juxtu handik urte bete baino lehen, Vizkaia et Durangoko eliza guztiak laikoen agindupetik askatzeke («ingenuotzeko») dekretua zabaldu zuen Nafar Erregeak, besteen artean, honako agindu hau emanez:

«...ohitura baitute (eliz jabe laikoek, noski) beren zakurrak monasterio edo elizara bidaltzeko, eta beren morroiak haien zaintzera, eta nik Garsea erregeak, aditzera ematen dut inork ez dezala egin holako gauzarik».

Zakurrak elizan edukitzeko ohitura hori, ez omen zen Espainia osokoa. Gure alderdi honetakoak bakarrik: izan ere, Espainian ez bezala, «zakurrak elizan edukitzeko eskubidea» zabaldua baitzen Bretona, Ingalaterra, Flandes eta Ipar Europako elizatan, eta euskal itsasketariak ekarri zutela uste da.

Baina nondik sartu zen elizara «derecho de jauría» hori? Ba-

dirudi, ehizarako eskubidea, hasiera batean libre zena, jauntxo feudalek monopolizatu zutela lurrak berenganatu ahalean. Gero, beren jabetzako monasterio asko, ehizarako eta defentsarako leku aproposetan eraiki zituzten; monasterio hitzak, grekeraz: «bizileku bakar-tu» esan nahi du, eta jauntxoek, zer nahiago, beren agindupeko fraileek, zakurrak hantxe bertan bazkatzea baino, ttaka bertatik ehizara edo gerrara ateratzeko.

Jauntxoek elizetako buruek, «etxe abade» zuten izena Bizkaian. Izan ere, ertaroan «etxe» izenak, gaztelarazko «casa solar, principal, palacio» esanahia baitzuen, eta hala, etxalde noble baten elizako abadeari «etxe abade» deitu izana.

Eliza Katolikoak abusotzat jo zuen, erregeek, printzeek eta jauntxo nobleek beren ehizakurrak elizaren kontura bazkatze hura, eta aurka altxatu zen behin eta berriz kontzilio eta sinodo askotan, baina ez pentsa lan samurra gertatu zitzaionik eliza ofizialari bere dirutik ordaindu behartako «gustum canum» hura moztea; sekulako auziak sortu baitziren elizaren eta jauntxoek artean, «derecho de jauría» zela medio.

Bat aipatzeko, 1336an, Brabanteko dukeari bere aitak agindutako exonerazioa eskatu zion Liejako San Agustin elizak. Keja Benedicto XII Aita Santuaganaino iritsi zen, baina azkenean beneditarren esku gelditu zen zakurren mantenua. Klase askotako zakurrak ziren gainera: zakur handiak, azeri zakurrak, erbizakurrak, otsozakurrak, eta XVII mendean oraindik auzi harekin teman zebiltzan Brabantekoak.

Kontuak hola, ez ote dira auzi honetatik sortuak gure Ehiztari Beltza, Mateo Txistu, eta sustrai bereko leiendak? Larri ibili. Eta horra non, elizako «jauría» honek, euskal ahuria ekarri didan gogora; eta badirudi bi biak arabierazko hauriya hitzean dituztela erroak.

## Ziria

• Motxorrosolo •

### Oliviaren haserrea

**G**ABRIEL ETA ANTONIO LOGROÑON ZIREN. EGUZKIKOEK, PANKARTA BATEN ATZEAN, dispertsioaren kontra oihuka. Herbestek elkarrizketarako parada eskaini zuen. Orain Gabrielen emazteak salatzeke gogo duen egunkariak kontuak argitzeke aukera eskaini zien, elkarrizketa horietan epaiketan adituko ez direnak entzun omen ziren. Bakar batek artxibo ederra osatua dauka. Kukuak makur jo dio Olivieri. Kordobillakoak informazioa kudeatzen badaki, tantaka, aleka, komeni zaion gisan.

Laura Beloso ☉ Zinemagilea

# «Nafarroan laburrak egitea Madrilen baino errazagoa da»

**IPEsek antolatu duen Emakumea eta Zinemaren XII. Erakustaldian Laura Beloso zinemagile iruindarrak *Destiempo* film laburra aurkeztuko du gaur, 10:30etan eta 20:00etan, Golem zinematokian. Emakumeek gauzak kontatzeko aukera gutxiago izan duten arren, ez du uste haiek egindako lanak beste begirada bat duenik.**

**G**AUR PANTAILARATUKO DENA HIRUGARREN lana du Bellosok. Bigarren hauraren esperoan dagoen bitartean, lehenengo film laburra hausnartzen ari da. Dena den, ez du presarik.

■ **Nola hasi zinen zineman lan egiten?**

Idaztea nuen gustuko. Kazetari moduan lanean hasi nintzenezan etsipen handia izan nuen. Palman hasi nintzen, eta asko asperitu ere bai. Famatuak jarraitzea zen nire lana; aspergarria zen. Ez nintzen bereziki zinemazale, baina istoriak idaztea gustuko nuen. Gidoilari ikastea erabaki nuen eta horregatik joan nintzen Los Angelesera. Han hasi zen zinemarekiko dudaren benetako afizioa.

■ **Hirugarren laburra duzu gaur aurkeztzen den *Destiempo*. Zer aurkituko du ikusleak?**

Gidoia duela bi urte idatzi nuen eta joan den urtean filmatu nuen Madrilen, Aventura ekoiztetxearekin. Istoriaren protagonista Maria Icaza aktore bilbotarra da eta lan taldean gus-tura aritu nintzen. Istoria oso kafkianoa da. Emakume batek guztia nola galtzen duen adierazten da; tabako paketea galtzetik hasten da, eta ondoren beste guztia, baita haurra ere.

■ **Gidoiak idaztea gustuko duzula diozu. Non aurkitzen dituzu argumentuak?**

Oso gutxitan dut argi zer nahi dudana. Argumentuak edozein bitxikeriatan antzematen ditut.

Zerbait bilatzeko jarreran zaudenean, aurkitzen duzu. Sortzen jartzen zarenean beti suertatzen da zerbait. Garai hobek eta txarragoak izaten dira, baina beti ateratzen da zerbait.

■ **Zure aurreko lanak eta oraingoak badute zerikusirik?**

Uste dut ez dutela elkarrekin zerikusirik. Baliteke denbora iragan ahala zerikusirik aurkitzea, baina orain behintzat ez diet deus aurkitzen. Lehen lanak ezustean harrapatu ninduen. Ez nuen dirulaguntza espero, ideia banuen baina esperientzia handiegia zen niretzako. Ordurarte ez nuen sekulan zine kamerarik ikusi, papera eta boligrafoarekin egiten nuelako lan, eta ikasteko oso ona izan zen. *Simétricos* izena zuen laburrak eta oraindik ere gustoko dut, nahiz eta ez nukeen errepikatuko. Bigarrena Erdi Aroko istorio bat zen: *Blanca o la luna* izenekoa. Nafarroako Blanca erreginarengandik inguruan hainbat kontu entzunak nituen. Hortik hasita, istorio bat egin nuen. Bi laburrok Txepe Lararekin filmatu nituen. Batak besterarekin ez dute zerikusirik. Gauza ezberdinak probatu nahi nituen. Bakoitza ikasteko esperimentu bat da, horretarako egiten dira.

foarekin egiten nuelako lan, eta ikasteko oso ona izan zen. *Simétricos* izena zuen laburrak eta oraindik ere gustoko dut, nahiz eta ez nukeen errepikatuko. Bigarrena Erdi Aroko istorio bat zen: *Blanca o la luna* izenekoa. Nafarroako Blanca erreginarengandik inguruan hainbat kontu entzunak nituen. Hortik hasita, istorio bat egin nuen. Bi laburrok Txepe Lararekin filmatu nituen. Batak besterarekin ez dute zerikusirik. Gauza ezberdinak probatu nahi nituen. Bakoitza ikasteko esperimentu bat da, horretarako egiten dira.

■ **IPEsek antolatutako erakustaldian hiru emakume nafarrek, zuk zeuk eta Julia Juanizek eta Mertxe Alvarezek, lan bana aurkeztu duzue. Erraza da film laburrak egitea Nafarroan?**

Zaila da, baina gaur egun beste garai batzuetan baino errazagoa. Ez diot erraza denik, baina azken zazpi urteetan errazagoa da. Aurreko Gobernuak baino diru gutxiago ematen du oraingoak baina errealizadore berriei begiratzen zate, zinemaren industrian jende berria sartzeko aukera baloratzen da. Nafarroan film laburrak egitea Madrilen egitea baino errazagoa da. Urtero bi labur egiteko dirulaguntzak eskaintzen dituzte eta oso ongi dagoela uste dut. Bi milioi pezeta baino gehiago eman zidaten labor bakoitzeko (80.000 libera). Diru hori aski ez den arren, hori gabe ekoizleak ez luke pelikula egitea pentsatuko ere. Beste maila batzuetan gehiago lagundu beharko litzateke. Montxo Armendarizek ez du sustengurik izan. Aurrera atera da, baina ez da izan eurei eskerak.

■ **IPEsek hamabigarren aldiz antolatu ditu Zinema eta Emakumea topaketak, emakumeek egiten duten zinema ezagutzera emateko. Emaku-**

Nafarroako Unibertsitatean kazetaritza ikasia. Ikasketak bukatu eta Los Angelesera joan zen, gidoilari master bat egitera, Laura Beloso iruindarra. Urte bat egon zen han eta itzultzean Nafarroako Gobernuak dirulaguntza bat eman zion; 25 urterekin, bere lehen film laburra egin zuen: *Simétricos*. Bigarrena ere Iruñean egin zuen. Hirugarrena egiteko, aldiz, Madriler joan zen, Espainiako Kultura Ministerioaren laguntza aprobetxatuz.

Espainiako hiriburuan hiru urtez aritu zen Bideomedia ekoiztetxean, telebistarentzako gidoiak egiten, Iruñera bueltatzea erabaki zuen arte. Hogei hilaibeteko alaba bat du eta hamar bat egun falta zaio semea izateko. Hala ere, aurrerago gidoiak egiten eta zuzentzen jarraitu nahi luke.

Egun, Euskal Herriko Unibertsitateko Leioako campusean Zinema doktoregoa ikasten ari da. Ez daki tesia eginen duen, ikastea baitu helburua. Zinemaren inguruan lan egiten ez ezik, haren inguruan ere ikasteko asko duela uste du, eta horretan dabil azken boladan.

■ **meek egindako lanak badu beste begiradarik?**

Uste dut ezetz, baiya ez nago oso ziur. Ez naiz aztertzeraz gelditu. Baliteke gizonak egindako pelikula batzuk ere emakumezkoaren begirada izatea. Emakume batek egiten duela ez du zertan femeninoa izan. Gauzak kontatzeko aukera gutxiago izan ditugun arren, ez dut uste hainbesteko ezberdintasuna dagoenik.

■ **Noizko film luze bat?**

Ez dakit, aha! dudanean. Oso zaila da. Beti izan dut helburu. Lehen laburra filmatu nuenetik buruan dut film luze bat egiteko go-

goa. Droga moduko zerbait da: lehena eginez gero, bestea egiteko dirua nola lortu pentsatzen hasten zara. Dena den, ez dut presarik. Lehenengo film laburraren ondorengatik lehen luzea egin izan banu, oso txarra izan zitekeen. Gauzak ikasi egin behar dira, pausatzen utzi. Gauza bakoitzak badu bere unea.

■ **Egun zertan zabilta?**

Film luzean pentsatzen hasia naiz eta noizean behin aritzen naiz. *Thriller* bat da baina ezin dut gehiago aurreratu, oraindik hasi besterik ez naizelako egin.

→ Irene Arrizurieta



● LUIS AZANZA

soslaia

## BEKARIO!

patxi@earthling.net



## Nafar Kronika

Fermin Erbiti

### Liburuen txikitasuna

**G**auza jakina da liburusaltzaleak materiala kaleratzera beharturik daudela jendeari izugarri kostatzen baitzaio liburudendetan sartzea. Aurten ere, horixe egin dute ekainaren hasieran, liburuak kaltetan jartzeak bezeroen kopurua handituko duelakoan...

Peter Mayer editore ospetsua Madrildo liburu azokan izan da eta kazetari bati erantzunez liburuaren merkatuaren txikitasunaz mintzatu da. Merkatuaren lege zorrotzen jarraitzaile sutsuek txikitasun edo handitasunaren gorabeherak ustezko lege demokratiko horiek finkatzen dituztela argudia lezakete. Hala balitz, tira, zer egingen diogu...

Badira, ordea, merkatuaren lege horietatik kanpo bizi diren bertze merkatu batzuk, behetik gora antolatu beharrean, goitik behera antolatu direnak: armen merkatua, esate baterako. Negozio horretan ari direnak bezero oso onak dituzte, denok gaituzte bezerotzat mila milioiko erosketak gure izenean egiten baitira. Armen saltzaleak ez dute inoiz materiala karrikaritzen, ez dute periodikuetan publizitatekin egin behar eta merkealdiak ere ez omen dira oso ohikoak. Izan ere, bezeroen zerrenda handitzerik ez dago.

Liburuak erostera ez gaude beharturik baina, tamalez, armen erosle egin gaituzte. Horren arduradunak, oso noizean behin, kultur gizon-emakumeren bat aukeratu, ekitaldi hunkigarria antolatu eta orduan azpimarratzen dute horrelakoetan azpimarratu beharrekoa, alegia, kultur gizon-emakume horien lana txaloga-ria izateaz gain, preziorik ez duela.

Bitartean liburu saltzaleek karriketan segitzen dute bezeroen kopurua handitu nahian, liburuak inoiz baino merkeago salduz. Azoka amatu-rik, zerrendak egin eta lehen postuan nafar bat. Nor eta Txunari Alfaro bere La botica de la abuela liburuarekin. Hunkigarria hori ere.

## gure aukerak

### KONTZERTUAK

► **Doneztebe:** Josetxo Goia-Aribek bihar kontzertua eskainiko du, 20:00etan, elizan. Ekitaldian *Eunate* bere azken diska aurkeztuko du.

### ANTZERKIA

► **Zizur Nagusia:** Kukubiltxo taldeak *Kukubel* lana taularatu-ko du gaur, Erreniagara parkean, 17:00etan. Bihar, berriz, Tombligo teatroren *Caninardo* aurkeztuko da toki berean 12:00etan.

► **Barasoain:** Al Suroeste teatro taldeak *Lastre de comics picaros* lana taularatu-ko du gaur, 22:00etan, frontoian.

### ZINEMA

► **Iruñea:** Golem zinematokietan *Mrs. Dalloway* eskainiko da gaur, 10:30etan eta 20:00etan IPESek antolatutako Emakumea eta Zinema zikloaren baitan. Yamagutxin berriz, *Romance en New York* eskainiko da.

### ERAKUSKETAK

► **Lizarra:** Jose Ortega eta Koldo Sebastianen lanak ikusteko aukera dago datorren ekainaren 28ra arte Gustavo de Maeztu museoa.

### BESTELAKOAK

► **Iruñea:** Erreniagara III. Haurren Ibilaldia egingen da etzi. Ibilaldia Zizur Nagusiko Eskola Publikotik aterako da 8:30etan. Izena emateko, dei 948-22-43-24 telefonora.

► **Zizur Nagusia:** Kultur Patronatuak eta Ardoy Kirol Elkarteak Udako Kanpaina antolatu dute. Igeriketa, plastika, pilota, tenisa edo keramika ikasketako aukera dago, euskaraz zein gaztelaniaz.

► **Iruñea:** Nafarroako Kirol Elkarteak Frantziako Pirinioetatik zeharkaldia antolatu du uztailaren 2tik 8ra arte. 16-25 urte tarteko gazteek har dezakete parte. Izen ematea eta informazio gehiago 948-22-43-24 edo 22-98-20 telefonoetan.

► **Iruñea:** Nafarroako Antzerki Eskolak hainbat ikastaro antolatu ditu udan helduentzako zein haurrentzako. Informazioa, 948-22-92-39 telefonoan.

► **Auritz:** Etzi merkatu transhumantea egingen da herriko

plazan. Han izanen dira hainbat artisau beren jaki eta lanabesak erakusten.

► **Baigorri:** Xabier Montoiak Non dago Stalin eleberriaz hitzgingo du Bixentina elkarte- an, bihar, 18:00etan. Afalostean, kontzertua eskainiko du.

## Harri Fiction

Urdirzo-Lacostini



Koskortzen naizenean, punkya izango, non future oihukatuko, eta sobredosis batek akabatuko nau. Ni hippya izango, Internetik gabeko herrika batean maria landatuko, eta Isis izeneko neskato bat edukiko dut. Ni injinerua izanen, eta orain arteko injeneruek izorratu dutena konponduko dut. Nik kebide zikin hauek Afrikara eramane eta aberastuko naiz.

GUK ERE EZ DAKIGU ZER IZANEN ZAREN.

**IKASBIDE**

ESKOLAN ETORKIZUNA ETORTZEKO DA